EGUNA

JEL

Amazortzi millara eldu gara.
Noiz ogei millara?
Il onetan, zeuk gura ba dozu.

Lgo. urtia | 29'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. otsaila 3'gna. eguaztena | 15 eunen

Ez pozik, ez itxaropenik Hitler'en itzaldiak

Ingelesak or diardue bere esanen mamiñik artu eziñik eta frantzetarrak keskatan diardue saspiki orren lur egarriak nun asetuko diran eztakiela

Paxisten izparringijak diñoenez, 50.000 errusitar eldu dira Bilbao'ra

Atzeikara, bai dirudi ezta?

Aufe - ufe ostera...

Londres.—Sekulakorik naste ta jakin-eza sortu dabe Hitler Alemania'ko ditadore tratadu apurtzaliaren esanak. Bere larunbateko mamiña artu gureaz eta artu eziñik izerdi lapatzetan diardue ingelesak. Jo batera ta jo bestera, arį bateri ikutu ta bestia artu arẹn, bere indarik eta alik ezin igari dabe. Misterio ugari, eskutuko asko ikusten dabe itzaldi oretan.

Ori dala ta ingeles agintariak Hitler'eri edo bere ordez Reich'go gobernuari ots egingo dautse itzaldi ori ainbat argien agertu dagiala; bere eskutuak aztertu dagiezana ta asmo ta ustiak zer eta zelakuak diran ziaztu dagiela.

Ingelesak asarẹ dagoz. Eskutukeriekaz barik, argi ta ziatz azalduteko eskatzen bai'dau Europa'ren egoeriak.

* * *

Paris.—Iru egun igaro dira Hitler'ek bere itzaldi zaratatsua egin ebala ta oraindik frantzezak eztira euren senetik urten.

Hitler'egariz agertu dala ba'dakie, baña ezari ori zenbaterañokua dan eta nun asetu gura daben eztakien oraindik. Egia da frantzesentzat eztala izan oraingoan ain gogor azalez beintzat. Baña gibeletik?

Auxe da frantzetarak igari ezin dabena ta eskatuten dituzana.

Alemania'n jendea asarre

Españar langillien alde dirubatzen ibilli diranak, il egin ditue

An bere asi dira gertakizunen barri jakiten

Paris.—Egon-ezin eta asarẹa ugaritu egin da alemanen artean. Eta baita España'ko auziaren bari argi argiro jakiten be, asi dira.

Españar langileai laguntzeko, ixil ostuka, talde batzuk ertsu ditue.

Españar erizaliei laguntzeko diru biltzen asi ziranen artean, Bremen'go pabrika baten ogetamairu langile atxilotu ebezan.

Munich'en, 94 gizon preso artu zituzten, eta 42 geyago il zituzten, españar langiliei laguntzeko arazu ortan ebiltzalako.

Paxistentzat guda-gauzaz beterik, Hamburgo'tik ontzi batek urten bear ebanean, ontzi-gizonak ukatu egin ziran, eta orduan, beste batzuk biali zituen arein ordez. Baña gero, preso artuak izan ziran.

Asi dira eritarak auzi ori zein eta zelakoa dan jakiten. Eta gero ta asarẹago dagoz alemanak yatorkezan kalteak dirala-ta.

Kukurrukuka dabiltz

Europa'ko bake ta lotsa jagola geu bakarrik gara

Orra Itali ta Alemani paxistak adirazi nai dabena ta diñoena

Paris.—"Le Temps,"ek paxisten goraberak azaldu naizik, idazlan bat dakar. Ona emen labur.

"Izparingi aleman batek, auxe esateko lotsarik ez dau izan. Emen ditugu Estadu agindaritsu ta lotsadun biak, Alemani ta Itali. Berotek dira Europa'n, jasa ete zuzentasunaren ordezkari ta jagolak."

Hamburg Fredemblatt izan da egunkari ori.

Esakune ausarditsu ori, ez deritxoe ondo ingelesak. Frantze ta England, Estadu erizaleak, bakearen alde ainbat neke ta alegin jasan dituenak baztertuaz, Europa'ko lotse ta zuzenaren jagola Itali ta Alemani dirala bakarik esatea ezin ontzat artu.

Indarez ta zemaiz jokatu daben Estadu paxistak aña lan, gutxienez, egin dabe Frantze ta England'ek. Bañan, beste bidez, ordea.

Paxismoaren eta komunismoaren kaltez, eten bage jardun dabe, bakearen ta lotsaren alde, indarez indarez baño egokiago dala uste izanik.

Mussolini'k beñola esanikoa, Goering'ek oraintsuago Eroma'n bayeztu egin dauala-ta, ingelesen ardura ta kezkak areagotu egin dira.

Ona Goering'ek esan dauana: "Erlak batera ala bestera jokatu, argiro erabagi beaŕko dabe".

Alde batetik, Moscu'ren jaraitzale diranak odol eta erlotzez beterik, eta bestetik, erlak ondamendian murgilduten nai ez dabenak.

Arlskua sortutean, adizkide zeintzuk eta arerio nortzuk diran jakiteko, ingurura begiratutea noraezko da."

Talde bien burukea dogu. Europa zati bitan bananduten daben asmo ta gogayen burukea. Erlegiño biren arteko auzi antzera, sarkaldetar gizabidea bezera zmilduko duana.

Ofa or, erl azkezale ta erl zaleak—ortze Frantze ta Inglatera—galerazi nai dabena.

Hitler'en itzaldiaz, italiarrak diñoena

Ezin errien artean bakerik izan, alkarren kaltez irañak zabalduaz

Milan. — Hitler'en itzaldilik, ondoren oneik atera dira.

Lenengo. Ekonomi ta eriketa artuemonak estadu guztiei komeni yakezala

Bigarẹn. Erl bakoitzaren asmo ta gurariak aintzat artu beaŕa.

Irugarẹn. Lateŕ-Batza auŕerantz egin bear duan eraigundea izan beaŕ dala, atzerakoa barik.

Laugarẹn. Erien arteko artuemonak, zuzentasunak aginduten dauanez ezariak izan beaŕ dirala.

Boskarẹn. Erl bakoitzak bere armak onenbeste ala arenbeste izatea, beste eriak nai dabelako ta nai aña ez dedila izan.

Seigarẹn. Ezin leiteke erien artean bakerik izan, alkarẹn kaltean iñun diran guzuŕ ta esanesak sortuaz. Esaterako, oraintsu Alemani'ren kaltez egin dana, bere koloniak nai dituala ta, ao miñetan izpide baga erabiliaz.

Zazpigaen. Europaŕ bakea lortuteko bide erezik ba-dala. Oraindik orain, ingeles ta italiarẹn arteko egiunearen antzerakoak egiñaz.

Zortzigarẹn. Europa'n bakea jadetsiterako, erl txikien eskubideak aintzat artuaz izango.

Bederatzigarẹn. Alemani'k ez duala egundo bere izen ona ta izakeraren kaltez dan egiunerik.

LINDBERG'EN IBILLERAK

Paris. — Carlos Lindberg ospetsua norbaitek il egin dabela esan dute. Baña bari ori laister guzurtau dabe. Lindberg'ek kalte barik lurra artun eban, bere emaztia lagun ebala, eta gaur jaraituko dau bere ibil-bidian.

Izpar geyago

Daladier'en itzaldia.-España'ko auzia, españarrak bakarrik erabagi begie, diño. - Janari urri, baña kañoe ugari Alemania'n. - Españar paxista asko, Portugal'en, aspertuta. Emeretzi lagun ito.

DELADIER'EN ITZALDIA

Paris.—Izparingiak goralbenak egin dautsez Aldeztza ministruari bere itzaldia dala-ta.

Erlaren asmoak oso ederki azaldu ei ditu.

ALEMANIA ARISKUA DA ERIENTAT

Paris.—Atzo batu ziran aldunak legetxean, aberiaren aldeztza arazuak erabagiteko.

Gudarostea indartu eta sendotutea, aberiaren aldezko lanetan beñena dalu, esan dau aldun batek.

Alemania'k guda egiteko, miloe bat gizon baño geyago gertu daukazala-ta, guztientzat bere, ariskо andiko gorabera da orixe.

JANARI URI, BAÑA KAÑOE ASKO

Paris.—Hitler'en itzaldia uste zan langoa ez da izan izparingi geyenen eritxiz.

"L'Ami du Peuple" egunkariak gogor joten dau Hitler'en aurka. Itzaldia ezer jasotekoa barik, kentzekoa izan da. Komunismoaren kontra dabileneko atxakia azalduaz bere gogoko ez diran kontra diardu Alemania'k.

Alemani'k —esan dau— agindaritza salak egoki antolatu ditu, eta erlarak ixilik egon beaŕa dabe, gudarosteari kañoiak lortuteaŕen, janariz uri bizi dira.

Beste izparingiak bere, aurka dagoz, baña ez ain gogor.

PAXISTAK ASPERTUTA

Rio de Janeiro.—Lisboa'ko izparak diñoez, España'tik igesi ara eldnta joandako Burgos'ko gobernu zale diran españarak, kezkaz beterik dira, paxisten alegiñak asteak joan asteak etori ondoren onik izan ezdabelako.

ALEMAN ONTZIAK SU

Londres.—Paxista alemanen gudontzi batek españar ontzi baterį su egin dautsala-ta, zer esan andia sortu dira.

Egia ete dan argitu beaŕ.

OPOŔA ZARATATSUA

Washington.—Roosevelt lendakari jauna General Motors'etako opoŕa erabagiteko asmotan saŕtu danarẹn ezin ixan dau ezer erabagi ugazabak oso-osotara ukatu diralako langilean eskabidiei amor-emotera.

Langiliak, bereun mila inguru, opoŕa jaraitzeko asmotakuak dira, baña ba'dira euren artian amaitu guradabenak be.

Bi mila poliziko gertu dagoz ezer jasoko ba'litz be urteteko.

ORDEZKARI BARIA

Roma.—Cantalupe jauna, Itali'k Rio Janeiro'n eban ordezkaria Burgos'ko gobernuaren ondoko ordezkari lez ixentau dabe.

PORTUGAL'EKO PAXISTAK BURU'TIK

Lisboa. — Bilduŕa sortutiarẹn asi eben egoeriak oraindik len lez jaraitzen dau. Gobernua atzo araatsaldian batu zan eta egoera au erabagiteko neuriak artu ziran.

Eun ^gun baño geyago detenidu dabez, geyenak españarak eta frantzetarak.

POZ ETA ALAITASUNA

Estocolmo. — Alejandreta'ko auzia erabagi dalako poz eta alaitasun agerkuntza bat egin da. Itzaldi ederak egin dira.

ALEMANAK EDONUN

Paris.—Yugoeslabitaŕ luŕean aleman bi atxilotu dabez izpiazgoan ebizalako.

AGINTARITZEA LAGA

Budapest. — Erl baŕuko arazuen arduŕduna ixan dan Koshuna jaunak bere agintaritzea laga egin dau.

TRATADUAK EGITEN

Berlin.—Frantze eta aleman ordezkariak Siria eta Libano'gazko tratadiak ixenpetu dabez.

EMERETZI LAGUN ITO

Boulogne Sur-Mer. — "Lorette" itxasontziko sendikopi adierazo yakoe, ontzi oretan emeretzi mariñel ito dirala.

Fuhrer'aren itzetaz

Bakea nai dau, bañan bakea lortuteko bide egikorrik ez du agertu

Paris.—"Le Temps"ek bere idazlan buruak, Hitler'ek bere itzaldi esan dauzan zertzalada batzutaz diardu.

Estadu aŕteko auziak atondute antzak dituala, bañan, ba-dirala besterako susmoak bere. Hitler'ek bakea nai dauala sinisten dau, baña bake ori jadesteko bide egoki ta ziuŕik e- dau agertu gura izan.

Frantze, Holanda ta Belgika-z esan dauanari, ez deritxa txaŕto. Alemani ta Frantze'n aŕteko goraberak, ordea, ez dagoz oŕen edef.

Belgika'k, 1914'gn. ez bateko ez besteko etzala-ta, aŕisku bage egolakoan, ba-dakigu aren eskubideak zer zori izan eben.

Hitler'ek Rusia'ganako duan ezin ikusia, ordez- bilduŕ izateko da. Eta erl aundia, Europa'tik aldendu gurea.

España'n "nazionalista" diralakoak irabazi ezketiño, ekonomi arloan Alemani'k ondore onik izango ei leike-ta, Alemani'ren laguntza asmua orixe da.

Inglesak betozkoz

Alemanen ditadorearen itzaldiak ez dautse ao sapairik gozatu

FRANTZE TA INGLATERA, KOLONIEN LAPURTZAT ETSI OMEN DITU

Londres.—Fuhrer'aren itzaldiak mingostasuna sortu dau ingeles agintari ta politiku artean.

Frantze ta Inglatera'ri, argi argiro barik, isil-misilik eta bestela baitakoan, bere kolonien ostutzale etsi dituala diñoe.

Komunistaen kaltez izugariak esan dituala, Txekoeslobaki'ren kontra zartako zofotzak jaurti dituala, ta Lyon'en, arestian, gobernu prantzeŕako buruak egin zuan itzaldia aipatu bere ez.

Gurti oek, ez dabe aorik gozotu emen. Ofez ganera. Eden jauna be, zertarako izendatu dau. Aren esaera "erlak mariekila, areago beaŕ dabe artileria baño" ezetsi ta guzuftauteko bakaŕik.

EGUNA Paris'en

Euzkadi'ren egijak oyu dagi ludijan

Euzkadi'ko Jaurlaritzea'ren bixitzan zuzutza ta zuzentasuna beterik ikusten eztalako, erlañar fascistak ezin jasan dabe, ta zer erantzun eztakijela, geure Jaurlaritza'gatik eta bertan diran jaurlari zintzuakatik astakerijak esatiari emon dautse.

Ludi aurian geure Jaurlaritza indarbakotzat agertu gura dabe, baña ezta be ezer bere lortuten, ba, geure agintarijak zapalduteko asmoz esaten dabezan guzuŕakaz, indartu baño beste rik eztabe egiten, geure Jaurlaritza'k dagijazan lan ederen zabalkundia egiteko atzerijan diran gixonen lana.

Txakuŕtzaren amoŕuba, ilten dagozala be bixi-bixi agertuten da, ta azken-arnaŕan be aginka egin gura-ixaten dabe.

Ori jazoten yako, gauŕ, España'ko gudalburu asaldari-etoyen zitalkeriari

Gudari lez ospegetuta edo "desacreditauta" dagoz españar gudalburubak ludijaren aurian. Doitserl'n (Alemania) bertan Franco "monigote" bat baño eztala diñoe. Ezin dabe ezer bere egin geure gudarijen aurka ta guzuŕak asmautia da euren zeregiñik garantzitsubena. Eta olkerena: sapuok alakuok geure Aberija artu dabe-su ren aŕikada gustijentzat. Antza danez burukomi-i andija damotse Euzkadi'ko Jaurlaritza'ren lan eder ta onurat u bak, eta beronek dagijan gustija ezeztu guratik, au dagijala ta bestia egiten dituala, guzuŕik birbiltenak eta edozein itxuk ikusiko leukezanak diñoez.

Euren baŕuba "veneno" mingotxea beteta dabe, ta euren bijotz erkin eta erlen txinpaŕtakaz sutu geure Aberija, baña Euzkadi'ratu baño len itzaliten dira.

Euzkadi'ren ixen ola lotu gureaz bixi dira Bilbao'n au, ori ta bestia jazo dala-esanaz. Bilbao, ludiko uririk matagaŕijena, Euzkadi, ludiko eririk zoragaŕijena oinperatu gura dabe.

Baña lotsagaŕijak alakuak eztabe ezer bere esaten Nabaŕa'n erail dabezan amalau anei (14.000) notiñetzaz. Eta eztabe ezer be esaten Ma onen amasaspi, amazortzi ta emeretzi, iru egun oŕetan Iruña'n erail dabezan egun eta berogetamaŕ (150) notiñetzaz.

Eztiñoe ezer be Gipuzkoa gurtijan egunotan espetxeratu dabezan gixon eta emakume zintzuakatik.

Eztiñoe ezer be Bizkaya'k zorigaistuan fascisten menpian dauan erl bakaŕan, aranteŕ-uri polit eta abertzalian espetxeratu dabezan emakume asko ta zintzuakatik.

Eztiñoe olakorik. Bilbao matian jazoten eztiran guzuŕak eztabe cinkalarik aureratuko, ba, Euzkadi'ran egijak oyu egingo dau ludiko izparingi gutijetan-eta.

ZETARGI.

KALAMU'TIK

Erritar batzuei

Erlitik alde egin ba genuen ere, ba dirudi idazkofizik ez zenduela astuta utzi. ¡Kontxo!, egunero irakurtzen bait ditut bertso ederak.

Kuŕeka eta Ametza'k jarl duten, "conflicto". Itali eta Alemani'rena baiño aundiagoa dala uste det.

"Andoni" berez, areglo bide bezela dabil. "Ametza"-en andregaia nai, e, Andoni?, kontu gero. "Ametza" ik gogor egin oleri. Ire alde bost bateri!

KAI-ALDE

Ba'gara?

Ezetz? Bayetz?

Zer esan ugari ibili da aspaldi onetan italiaŕ eta alemanak España eta Euzkadi'n dogun guda onetan euki dabezen aŕtu-emon eta indaŕa dala-ta eztala. Ikusi eta jakin aŕen ukatu eta gogor ukatu be, egin ixan bai'dabe erl sapu oŕeik. Bestelako aŕpegi lodi ta naŕu gogordunak dira ba eurak.

Orain oŕaitik ukatu aŕen, ba'dogu nun ziñestu. Gure alderdikoen uste eta esan-mesan aŕiñak zirala uste ebenak italiaŕ-aleman naspilok, begiratu begie oŕ goyan dagon argazki onetara.

Patxada-patxadan eta aro-aro dagon gixontxu dotore eta serijo ori ezta besterik Basiglio italiaŕ keneral ospetsua baño.

Eta nun uste dozue?

Ez erbestera jo. Ez urunean ames egin.

Gipuzkoa gustiak biotz-biotzez maite daben Donosti'ko Abenida'n dago, falangetaŕ eta ereketien ibilleria ikusten.

¿Akurtzen?

Donosti'ko Abenida'n, Sebasten deunaren eguniaz

Ba'dakigu orain?

OKERAK ZUZENDUTEN

Atzoko "Naskaldijan", okef batzuk agertu ziran. Eta ain zuzen be, "Maipuruban" ixenpurutzat ebala idatzi geban atalan.

Maipuruba ornidu ixan eben jauparijen artian, Ortuzaf'taf Imanol zintzuaren ixena ez zan agertu, ezta jauparijakin batera maipuruban jezafi ziran abeftzale ezagun oneinak be:

Arantzadi'taf Ingartzi, Efenteria'taf Gorgoni ta Uñolabeitia'taf Amantzi' renak.

Ordez, baña, beste okef au agertu zan:

"Arantzadi'taf Pantzeska'k maya onetsi eban."

Maya onetsi ixan ebana bafiz, Belaustegi'taf Pantzeska jauparija ixan zan.

Irakufle zufak, baña, okef ori sustefa, beriala idoroko eutsan, eta okef ofek asikerea nun ixan eban igafi be bai. Onako okefak baña irafkarijari jazoten yakoz, eta ez mendira otabafetan burdijaz juan dan burtzañari.

Areri jazo lelkijon okefa, beste au da: burdija irauli ta azpijan artzia. Okef au, irafkarijarena baño okefagua ixango litzake ¡Bai bein!

¿"S" ALA "Z"?

Ona emen lengo eguneko idazliak euzkel-idazlientzat ikasgafi ixango diralakuan bidaldu dauskuzan "s" ta "z" izkijetzazko arabak:

Esi: Valla, seto.
Ezi: Domar domesticar.
Erantsi: Agregar adherir, pegar.
Erantzi: Desnudar.
Eratsi: Derribar, ordeñar.
Eratzi: Desgarrar la piel.
Etsi: Apreciar en, desesperar.
Etzi: Pasado manana.
Ikusi: Ver.
Ikuzi: Lavar.
Jaso: Elevar, levantar.
Jazo: Acontecer, suceder.

PAXIOTAREN DONOKIJA

Gudalburuben gurendea egunoroko otoirik-otoyenetan eskatuten daben lekaimetxu bakun batzubentzat, matxinada au ekafi euskuben gudalburubak, gentzearen geznarijak dira: paxiotaren donokijko gotzonak...

Ludijan bixi diran gotzon (?) ofein egintzak ezagutuko ba'lebez, ezagutu, baña, beste gauzarik esango leukela uste dogu.

Sevilla'n gagoz. Eta Queipo'ren gutzonak bixi diran Sevilla'n, Queipo baño mala batzuk berago dagozan gudari-agintarijak, uri onetako jatetxe baten batu dira. Emaztiak be, eurakin dagoz.

Sevilla'n, baña, Franco keneralak ajantxe gura dabelako, doistafak be bixi dira. Eta doistafoik be, Hitler baño mala batzuk berago dagozanak dira, ta Madrid'ko guda-ofetan egunoro jausten diran doistaf gudari gixagazuak baño mala batzuk gorago dagozanak.

Hitler'en "opizialiak", Sevilla'n be, Berlin'en baxen azke jbilten dira, Berlin'en baxen "fascista" agertu be.

Eta Berlin'en baj-legozan edaten dabe, ta sevillafak lez moskoftu, ta izkanbilak-izkanbil softu be...

Eta ara ta ona saftzen asi dira. Queipo'ren menpeko gudari-agintarijak euren emaztiakin aurkitzen diran jatetxera elduta alako tokijan esateko egokijak ez diran gudari-ikastolako itz batzuk oguzten.

Eta Doistafen itz areik, Queipo'ren menpeko gudari-agintarijak mukeftuta jafi dabez. Mukeftuta, ta itzetik ortzera suizkiluba atarata Hitler'en gudari-agintarijei daunbadoska. ¡A lako gudaketarik...! Sei doistaf erail dabez.

Gudaketa au, Queipo'ren menpeko gudari-agintarijak irabazi ixan dabe. Oneik iru ziran. Beraz, bakotxak biña eratsi ebezan. ¡Azafijak dira!

Jazokun ori, beriala edatu da. Eta Hitler'ek Sevilla'n daukan ordezkarijaren buru-belafira eldu ixan danian, au beriala zutundu da, ta Queipo'gana zuzendu, jazotako jazokuna Queipo'ri edestuteko.

Eta Queipo'ri edestu dautsa. Edestu, ta españaf gudari-agintarijentzat zigofa eskatu be bai.

Queipo'k bayetz erantzun dautsa, irabazi ixan daben zigofa beriala emongo dautsela...

Eta geroko lagako ba'leu aiztu egingo litzakijola-ta, Queipo'k beriala epatu dauz bere menpeko gudari-agintarijak. Eta Queipo dan zuzenez, erijotzarako epatu be.

Eta Queipo'ren epaya beriala betetu zan: españaf iru gudari-agintarijak Queipo euren buru nagusijaren berunbilpian jausi ziran... Eta alan, Hitler'en asafia baretu zan. Ofa, of, "Paxiotafen donokija".

EUZKEL-IDAZLIEN JAUPAN

Igazi dan igandian, Bilbao'ko Jon Deunen ertxadonan ixan zan euzkel-idazlien jaupara etofi zan "Kirikiño" zanaren aldiko euzkel-idazle ospetsu bat aguftu geban: "Txapeltxu".

Antxiñako euzkel-idazle au, gauf, Gernika'ko endoria dogu. Eta igandian, Bilbao'ko Jon Deunen ertxadonan euzkel-idazlien jaupea eguala entzun ebanian, endoretzea bertan-bera laga-ta Bilbao'runtz igitu zan.

"Beju-Mendu" adizkidiak lagundu eutsan. Au be, ba euzkel-idazlia dogu, ta "Kirikiño" zanaren aldikua ta oingua ixan be. Idazlia ta Gernika'ko ziñegotzija.

Beraz, endore ta ziñegotzi, bijak etofi ziran, "or konpon" Gernika'ri esanda etofi be.

Baña Gernika'k beriala beraganatu ebazan, bazkaritan geratuteko be asti barik. Eleizkixuna amaitubaz batera juan ziran. Aguf, ba.

BESTE BATZUK BE

Beste idazle zaf batzuk be ikusi gebazan: "Kirikiño" zanaren aldiko idazliak.

Oneik, durangafak dira: "Kardantxilo", "Gogofa" ta "Efotari". Eta euroen artian, "Amagoya" durangaf idazlemia.

Eta onein antzian, ¿zenbat eta zenbat ez ete-ziran egongo...? Igazi dan igandian Jon Deunen eftxadonan batu ziran euzkel-idazliak askuak ixan ziran-eta, ¿nok gustijak zenbatu...?

Idazlerik geyenak gixa-idazliak ixan ziran. Oneik asko be asko ixan ziran, ba. Idazlemiak ostera, gitxi be gitxi.

"Mañariko" azkafa, beñepein, ez geban ikusi. "Ete" markinaf zolija be ez, ezta "Afitokieta" azkafa ta beste idazleme jayo asko be.

Lefuok idazten dabezanak ikusi ezafen, baña, ba-zeikian, areik, Bilbao'n ixatja. Askoren artian, ¿nok danak ikusteko...?

GUDA-OSTIAN

Zoritxafeko guda au amaitzen danian, Goikua lagun, beste eleizkixun bat egin biafko da: euzkel-idazle gustijen batasuna ta bata-bestiaganako matetasuna softuko dauan eleizkixun afunta. Euzkel-idazlien artian benetako matetasunaren biafa bai-da, ba.

Eleizkixunak, ondoren, onturuntzea berla dau Eta oturuntzeak, azken-aldeko abesti, itxeikixunak eta abar.

Eta oneik matetasuna bifafte dala egiten diranian, alatzik-alatzenak egin oi-dabez. Alatzoik gustijok besafkatuteko ixan bediz, eta ez bata-bestia zirikatubaz alkaf ilduratuten ibilteko.

Indaf ixikija aundijagaz, eta aundija txikijaz batuten diranian, bijen artefindaf aundija aundijagotuta iminten dabe. Banan dirala bata-bestiari zirika ifiarduten ba-dira, baña, altsuba ixan biaf litzakena, algetuta, zirkinduta gauza aundi bat egiteko gauza ez dala geratuten da.

Batasun ori egiteko, baña, baldintza bat biaf da: goikuak beltuari, matetasunez eskuba luzatutia. Eta bekuak, goikuari, keska txaf barik begiratu, ta atzipetuko daben susmo barik anaikidetutia.

Indaf-bidezko batasuna; indaftsubaguaren irizpidia "jaungoikoixun" dala egiten dan batasuna, indaf bako batasuna ixango litzake. Eta euzkeldunen arteko batasunak indaftsubak ixan biaf dau. Goiko Jaun'aren bidezko irizpidia gixa-irizpide gustijen ganetik dala egiten dan anai-batasuna.

Guda-ostian matetasun gustijak il gura dauzan guda ezeskafi au amaitzen danian Goikua lagun dala egingo dogun eleizkixun eta ondorengo batzafian, orain afteko gure ezpai gustijak betiko lufalduta geratuko dirala uste dogu.

Gudalburu asaldarijak gofotuari esijak edegiteko ekafi eben gofoto-guda onen azkena, gofoto ta gofoto-bide gustijen azkena ixango da, ba. Eta ordez, matetasunaren berbizkundia.

Gudearen azkena, beriala ikusiko dogu. Eta guda-azkenaz batera Euzkadi ta euzkotaf gustijen zorijona etofiko da. Goikua'ren zuzutsa onetsija ixan bedi.

AGATE DEUNA

Aintzaldu daigun Agate Deuna,
biar da, ba, Deun Agate,
etxe onetan zorion utsa,
betiko euko al-dabe.

Efiko endore agintariak
daukogu emon da baimena,
abesti bidez eskari eiteko
zeuori Deun Agatena.

Deun Agate'ri eskari egin da
gatoz guztiok batera,
sorozki batzen txiruarentzat
dei egiñagaz atera.

Ate-aufeko abesti onek
buaz zeuon biotzera.
maitaro emon al-daizubena
ezkafez guaz aftzera.

Euzkotaf anai efukafi asko
dago premiñaz beterik,
euroi laguntzen zatozte danok
biotz eta esku zabalik.

Eurko-anaian lagun eiteko
erantzun geure deyari,
Jaungoikua'fen lagun dayogun
euzkotaf biaftsuari.

Areioaren menpian dogu
Euzkadi'n atal andia,
¡aupa mutilak!, azkatu daigun
Euzkadi maitagafia.

Aupa zeuko bere, ¡gora biotzaf
euzkotaf emakumia.
danok batera gaizkatu daigun
asabaen abendia.

Euzko gaztetxu samuf kutunak
zatoze geure aftera,
besten menpetik atera daigun
Euzkadi danok batera.

Aguf etxeko jaun zintzuori,
agur etxeko andria,
sendi guztiaz dopatzueguz
zorion eta bakia.

Mañako

BILBAO'KO izparringijak diñuena

"Euzkadi"

"Panoramas fascistas. Demografia y militarismo". Ona emen "I. de O." idazliak idazten dauan idazlanaren ixenpurubak.

"Aldi bofildubetan gogai argijak"—diño. Loi aftetik gogai gafdenak ataratia guza gatxa dafa tsaten dau, baña, biafekua.

Gixona gixaftjan bixi ixateko jayua dafa d[illegible]. Eta gixonari, zuzen ibiliko ba-da, ibili, gixaftian bixitia biafekua yakala.

Bakafian eta iñokin itundu barik bixi dan gixonari, adimena ilundu egiten ei-yako, egin be, ta egin biaf dabezan gauzak biaf dan zuzentasunaz egiteko argi barik geratu.

Kistaf-jakintzaren asikerea be ofetantxe sendotuten ei-da: "La colectividad se ha hecho para el bien del individuo, y no el individuo para el bien de la colectividad"—ei-diño, ba, kistaf-jakintzaren asikereak: "Gixaftia notiñaren onerako egiña da, ta ez notiña gixaftiaren onerako".

Paxiotafak, gudalburu asaldarijak gura dabenaren iruntzija. Paxiotafak, ba, notiña jafi gura dabe gixaftiaren gotik, gixafte aundija notik txikijaren menpe jafteko.

Eta paxiotafen asmua ta gurarija be, auxe da: eurak buru diran latefijetan gixa-ugaritasuna. Baña ez kistaf-irakatsi-bidez azi ta Goikua'rentzat ixateko lufeko jaunkoixun biurtu ixan daben Latefija'ren otsein egiteko baño.

Paxiotafen jaunkoixuna, Latefija da, ba. Eta enparauko gixafte gustija, Latefija'ren otseñak.

Paxiotafen latefkera ofen aufka dagozanak, baña, Elexa deuna ta kistaf-bidez gixabidetu dan gixabidia dira. Beraz paxiotafen asmua, asmo deungia da, galbidera eruan gura gafuzan asmo ezeskafija.

"Tierra Vasca"

"La segunda fase. No malograremos la victoria". Ixenpuru oneikaz idazten dau lenengo idazlana.

Paxiotafak euren zabalgunderako ixan dabezan izkilurik aldintsubenak, atzefijan ixan dabezan ifadotsak ixan ei-dira, ta euretatik ludi-ziaf edatu ixan dabezan guzuf eta egi nasteko izpafak.

España'ko Gobernu - kaltez indafik aundijena ixan daben zabalgundia, baña, matxinada-asikeran efkaldafak batiar-bestian jauki ixan ebezan lafegikerijak ixan ei-ziran.

Asikerako lafegikeri areik ez dabezala aldeztuten diño idazliak. Lafegikeri areik geratuteko biaf ziran esijak jarteko indaf barik laga ixan eben Efkal-jaurlaritzak ia zer egin eikian, ifauntzen dau gero.

Gabetik goxera txajderatu eben matxinadea bide zala, Efkal-jauflaritza, esku-utsian laga ei-eben; eftzain ez gudari barik.

Eftzain eta gudari-gañokuak, gudalburu-asaldarijakin lotu ei-ziran, ba.

Eta alan be, paxiotafak efkaldafak baño naste geyago softu ixan ei-dabe, ta eraiketa geyago jauki be.

Dana dala, baña, Azaña'k Valencia'n itzegin ebanetik, beste era baten aurkitzen ei-gara. Orain eftzañak be ba-ei-doguz bafa gudarijak be. Eta bigafen aldi au ixango ei-da gurendea galdu barik azkenerafio eruango gafuzan bidia.

"La Gaceta del Norte"

"Hitler" ixenpurututen dau lenengo zefendako lana. Eta bertan agertuten dabena, Hitler'en itzaldijatzazkua da.

"Izkiluabak... Bakotxak gura daben beste egin dagixala. Izkiluz ornidu teko erabagija aftu ixan daben efijari eragozpenak iminteko eskubidia daukanik ez dago". Efi-bidijak zirala-ta, itz oneik oguzi ei-ebazan bein, Villatuerta'ko endoriak. Diputaziñuak eta Latefijak, baña beriala jakiñazo ei-eutsoen endore-gotik eurak aurkitzen zirana.

Hitler'entzat ez ei-dago, ba, ludijan, Alemania baño besterik.

"El Liberal"

"Balance semanal" ixenpurututen dau lenengo zefendako idazlana.

Ila au igikunde aundikua ixango dala diño.

Azkenengo astian jazo dan jazokunik gafantzitsubena, bafiz, Asturias, Santander eta Euzkadi'k Bilbao'n egin ixan daben batzafa dala agertuten dau.

Batzaf au bide dala, gurendearen azkenera elduko dan indafa, soin baten batuta geratu ixan dala diño.

Gurendara garuazan batzaf au ez ei-da azkenengua ixango. Geyago be egingo ei-dira, eurotatik ataraten diran ondorenak onurakof-onurakorak dirala-ta.

Santander-aldian paxiotafak, txafto duazala diño. Batez-be euren aftian. Egun baten paxiotafak euren buruzagi autetsi eben Moliner koronela, azken-aldian atara ixan dabezan nastiak ida dirala, sutoska eraiteko epatu dabela diñosku. Garaitzarik ez ei-dabe ikusten, ba. Eta garaitzarik ez ori ei-da paxiotafak nastauta jafi dabezana.

"Euzkadi Roja"

Euzkadi'ko Komunista Alderdijak azkenengoz ixan daben batzaf nagosijatzaz idaxten dau.

Eta batzaf aretan aftu ixan ebezan erabagijen agerpenaz, lenengo ingoski osua betetan dau.

Batzaf nagosi aretan batu ziran ordezkarijak Alderdi-gora-bera gustijak aztertu ebazala, diño, ta ziatz eta ondo azteftu be egin ebazala.

"¡Viva España libre!" ta "¡Gora Euzkadi azkatuta!", efi - azkatasunaren aufka jagi ixan diran paxiotafen aufka oguzten diran guda-oyuak dirala agertuten dau. Eta oyu bi onejk bide dirala azkatasun - areyuai atzerantz eragiteko biafekua dan indafa, gustijon afte batutiari, bidezkua deritxo.

"El Noticiero Bilbaino"

Urte onen bigafen ila, areyuen aldetik etofi diran bost gudarirekin asten dala diño.

Euzko-gudarijen suagaen indafa goralduten dau. Artilerijak lan edefa egin ixan dabela diño.

Suagalarijak be gero emen, onenetarikuak ei-dagoz. Zuzen eta ondo neuftuta botaten ei-dabez suaga-berunbilak.

Efi-aldezlien suagak areyuei egiten dautsezan kaltiak ondoen ezagututen dabezanak, euren aldetik onuntza etoften diran gudarijak ei-dira.

Eurak, ostera, suaga txaf-samafak ei-dabez. Sutautsa ta berunbila be, erdi ortik-emendikuak. Eta au egiztuten dabenak bertatik etofi diran suagalarijak ei-dira paxiotafen artian artileru jbilijak.

Paxiotafen aftian aurkitzen diran gudarijak gudarako gogo barik ei-dagoz. Guda au galdutzat esten ei-dabe.

—Jazoa jazo... gauf bai ta ez atzo... Zurijñek erdi-negarez esan eban.

Ori entzunda, bere ondoko neskato totoljak esan eban.

—Ori don erantzuerja... jazorikua baño be bakanagoa...!

Gero, danok ixilik...

Andik lastefera, euren bildufak bat-batez ayenatu ziran: eta orduan, aldiko ixil-une itzala ufatubaz, eskaratzeko notin gustijok (Atxiñe ta Zuriñe ezik) era batez bafiketa ugerijan asi ziran; ez ur ta ez ardau, ez gatz ez berakatz, zoro-zentzunbakuen jardunjan ebiltzazan...

Bafiketa ta naste aretan, bixaf zuridun aguria, Usunek, ikusi eban. Eta irugafen gorularijak, ango notin gustijen esanak, agurlak idazti andijan gordetan ebazala oaftu obanian, ikusirikua, zana zan lez, didaf andiz azaldu eban.

—¡Bixaf zuridun agure miragafi batek gure esan gustijak daruaz...!

Esan bildufgafi ofegaz, eskaratzeko notin gustijak, zaf eta gaste, ixu-ikaraz zutunduta, euren etxietarantza tximista baxen arin abijau ziran.

Eta, euren atzetik iru gorularijak be, ikusi eben gauza bakana oldoztuten ebalarik "Usotegi" rantza arin arin juan ziran.

Zerua ixafez beterik egoan; eta ego-axlak baso mendijetan "firi-firi" egiten eban bitaftian, an goyan, ilargijak, afpegi asafia agertu eban.

Atan-ofetan, gorularijak, gorantza begiratuta, zeruari, ortziari adi-adi jafi ziran. Eta... antxe zeruaren erdi-erdijan ixaf piluaren aftian, idazti, liburu andija izki-baltzakaz ikusi eben.

Eta, orduban... Atxiñe'k, Zuriñe'k eta Usune'k, bixaf-zurijdun agurlaren idaztijan euren esanak begi - zabalez irakufi ebezan...

Esan bakotxaren bafenian bafiz, ufengo izkijak egozala, ikara andiz oaftu eben.

Itz, ondo-ondo egin
bestela damutu egin...
Onok dirala, txafak dirala
Jauna'ren begijak adi-dirala.

MAÑARIKO.

IRU GORULARIJAK
Ipuña

"Iru neskatila
iru gorulari,
mingañari eragiñaz
ardatza erabill."

Eguzkijak, ilargijak eta ixafak izketaldi gozuak egiten ebezan aldijan "Usotegi" basetxe zuri-zurijan iru aizta, iru neskatil, poz-pozik bixi ziran.

Neskatilak Atxiñe, Zuriñe ta Usune ixenakaz ezagutzen ziran; eta irurak gorulari maratzak ziran. Ari zurijaondo ta me egiten, eurak lakorik, efijan ez inguruan be ezegoala atzo-agurak abo batez esaten ei-eben.

Gorulari efimiok, neguko gau guztijetan "Etxe-txiki" basetxera juaten ziran; ango lagun-aftian aldiko gau-luziak atsegintsu igarotiafen.

Gau ixaftsu atan be "Usotegi"-ko alaba lirafiak, euren eskubetan goru-ardatzak ebezalarik bata-bestian atzetik oinkada ixilez "Etxe-txiki" basetxera juan ziran. Eta, bertaratuta beriala, sutondoko bero gozuagaz atseginduta, izki ta mizki kontu-kontari asi ziran.

Lenengo, Atxiñek itz egin eban. Bere itzak baña, neskatil baten aborako egokijak etziranok ziran. Gau ofetan, Atxiñek bape lotsa-barik itz zikiñez itz-egiten eban. Entzule zoroen bafegafi, suburuko laratzua lotsatuteko eran ebilan...

Atxiñek jardun iguingafijan iñardubala, ikuskixun bakana ikusi eban. Bixaf-zuridun agure bat bere ondoan egoala oaftu eban. Gixon ezezagun miragafi arek, neskatilaren esanak gustijak idazti andi baten izki baltzez idazten ekin eban. ¡Gauza miragafija...!

Ori ikusita ¡gorularijaren ikeria...! ¡Ene! Eta, esku-bijokaz afpegija ondo eztalduten ebalarik bere izkera lotsagafijan bat-batez ixildu zan; bafiketan ez goruetan ekiteko adore barik geratu zan.

Emparau notiñak be, euren lagunari zef jazo ete yakoan oldoztuten jafita, ikeraldi efimia aftu eben.

—¿Zer jazo yana...?—itandu eutsoen.

—¡Jazoa jazo...!—gorularijak abots-itunez erantzun eban.

Erantzuera ofegaz, lagunak, ixildu egin ziran.

Gerotxuago Zuriñe neskatilak itz-egiten asi zan Bere aboak bafiz, aftazi zofotza bai-litzan, une batetik-bestera auzoko emakumearen gonia, gotik bera, ta magaletik magalera, tamalgafiro ebagi eban.

Ofetan Zuriñe'k be, bere aiztiak lez, bixaf-zuridun agurla idazti andijan zeozer idazten ikusi eban.

Bera be ikeratu zan; tayu aretako gixonik egundo jfiun ezeban ikusi... Eta "¡ondifio olakorik!" didaf zolitz esanikuan, goru-ardatzak esku-ikaraz supaztefera jaurtinda, bigafen gorularijak be, bariketarik ez gororik geyago ezin ixan eban egin...

Bafirokuan, eskaratzeko lagunak, ikaraldi efimiagoa aftu eben. "Ixen-bako sorgiñen" bat edo, euren aftian ainkada-ixilea ebilela uste ixan eben...

——¿Zer jazo yana...? ¿Zer ikusi don...? Artega itandu eutsoen.



DONOSTI BURU BATZARRA

ALDERDIKIDEATZAZ

Agintz nagusiak beteaz, Donosti-Buru-Batzaf onek jakin arazten du, guda sortu ezkeroz alderdikidetzeko esituta egon dan bidea iriki dula befiro.

Beaz, izBkaya'n zaudeten donostiaf adizkidiei deitzen dizutegu Jaungoikoa eta Lege-Zafa'ren ikufin pean babestutzera. Erdu zaiteste abeftzale izan nai dezuten guztiak.

Landola'ko ordua: Afatsaldean, iruterditik saspiak arte.

España'ko Izparrak-eta

Lenen ta beñena gudea irabaztea dogu, esan dau Largo Caballero'k. Zenbat lasterrago abe.-Madrid'etik lagun asko urten dabe, agindu ak betetuaz.-Egazkiña eratsi, Malaga'n.-Paxisten arteko lazkak. Ibarruri komunistearen jarduna.-Paxistak Madrid artu nai eben urre jaube egiteko.-Baña urrea españar gobernu jatorrak dauka.

LARGO CABALLERO'N ITZALDIA

Valencia.—Atzo, jaurletxean españar gobernu buruak itzaldija egin eban.

Laterifo erbeste arazuaz ekin eutsan lenengo. Control arloari buruz jardun eban. Asmo ori, ontzat artu eban lenengotatik gobernuak.

Baña agirijan ipini eban, eskubide osua ebala izkiluz, iñoren erasoai erantzuteko.

Control ori ontzat artzen dogu, baña baldintza bigar.

Lenengoa. Benetakua bedi. Iñok ez begi eskubiderik izan, españar gobernu jator oneri izkiluak kentzeko. Ondo ta legez sortua da-ta, eskubide osodun da

España'ra izkiluak bialtzen dabezan efiei eskatu begioe erantzupena, baña ezetara be ez emengo gobernuari.

Bigafena. Moruak atzefitartzat etsiten doguz.

Eta beraz, ofek boluntarijo ekartia be, galazo begio.

Ta azkenez, garaitza itxaropen oso osua dodala diñotzuet, eta laster ixan be egingo dala egun ori.

Zalantzaz ebiltzanak be, konturatu dira, gurendea efijarena ixango dana.

Baña, berialakua ixatea komeni yaku.

Ile bete. aste bete, egun bat, kalte egiteko aztf lafegi da.

Ni, alderdi bateko gixona naz. Ta neure alderdijan be, neure eritxijak ixan eta aldeztuteko azkatasuna eskatu oi dot.

Baña toki ontara eldu nazanian neure uste asko laga egin bear izan ditut.

Efijaren afiskua ikusi ondoren, neure aburuak nai ganian utzi dodaz.

Asmo bat eta uste bat bakafa guztijok: gudea amaitu, gudea irabazi. Orixe eskatuten dautset alderdi guztiak.

Gudea irabazi ezik, alpefeko litzakez alderdi gustijen asmuak.

Lenengo lana orixe, irabazi, gefa anker au. Ta ofetarako, danok alkartu biafa dogu.

Gaur, Erkal-gobernuari akatsak jarten ekitia, paxista ixatia da.

Guda-oñetan odala ta bixija eskefiaz, zintzo diarduen gizonai, eurengan dogun uste oso ta abespelua erakutsi dagiegun, aok au dagien lanaz batean, guk bere geure alegin eta ekitaldi bixijak ondoan jarten doguzala.

OVIEDO'KO GUDA OÑETAN

Gijon.—Alde onetan moro bi, infanteriko gudari bi, eta gexozain bi etofi dira paxistei igesi.

Ume eta emakume batzuk be etofi dira, paxisten indaf-menpetik ankef eginda.

MADRID UTZITUTEN

Madrid.—Ba'dua geldiro geldiro Madrid utzitute ori. Orain biaf dan lez eraldu da arazo ori eta gustiak biafturen dira urtetera, etxe baten bafuan bixi diran yente talde ugariak dirala-ta gexorik sortu eztaiten.

Egunero ainbatek urteten dabe eta lastef geyagok egin dagien asmoa dago.

IBAÑURI EMAKUMEA JARDUNEAN

Barcelona.—Jai bat egin zan atzo efi onetako teatro baten. Jente ugari bertaratu zan

Ibafuri'taf Nekane, "Pasionaria", eta Mr. Thorez jaunak itz egin eben.

Ibafuri'k esan ebanez izkiluz orniduta eta beteta dagon efian itxaropen osua eukí biaf da.

Gustiak gudari ixatera biaftu biaf dirala esan eban, paxista jauntxuak kaliejtan ibili eztaitezan trintxeretara juan barik.

Txalo ugari irabazi ebazan.

EGAZKIN BAT LURERATU

Malaga.—Paxisten egazkin bat efiaren gañian ibili zan atzo.

Egazkin aurkako kañoiak egazkin ofen aurka asi. Lastef inguratu ta lufera bota eben.

Mijar'en ingurutan jausi zan eta bere efestuak bilatzeko alegiñak egiten diardue.

PAXISTEN ARTEKO ASAÑIAK

Andujar.—Egunetik egunera asafe geyago dira paxisten artian. Batzuetan falangetafak eta efeketiak dira asafe diarduenak.

Asafe oneik alde onetan be sortu zirala esan lei. Atzo gabean Navalconejo'ko aldean pusil ta izkilazkafen sutots andia entzun zan eta euria pafa-pafa jausten zan unean entzun be.

ARAGOI'KO GUDA-OÑETAN

Osera.—Aipagafirik ez Aragoi'ko guda-oñetan.

Atzo gabian, bederatziak inguruan tiro-ots aundia egon zan. Ordu batzuk iraun ebazan tirots onek

ARERIOEN JOALDI BAT

Barbastro.—Fuenlabrada inguruan arerioa jo-aldi bat egiten ai zan, baña efez eta gogof atzeratua ixan zan.

BUJEDA JAUNAREN ITZALDIA

